

Galdegai-lekua testu-hastapenetan (I) (*Horrela bizi bagina beti* liburuan)

Mitxel Kaltzakorta Mentxaka

Artikulu-sail honetan egileak erakutsi gura du helburu nagusitzat Sebero Altubek emaniko legea galdegaiari buruz (galdegaia ipini behar da aditz aurrean) ez dela egokia. Horretarako, aukeratu ditu idazle klasikoen testu batzuk eta ahozko beste batzuk, baina aztertu beharrean testuok oso-osorik, jorratzen ditu soilik euretako hasiera-perpauak: idazle-hiztunek non kokatzen duten galdegaia, aditz aurrean edo ostean. Helburu sekundariotzat dauka, manipulatu gero perpau aztergaiak, alegia, tokiz aldatuz gero galdegaia eta aditza, aztertzea zelako eragina duten manipulaziook perpauak prozesatzean: zeintzuk osagai-hurrenkera irakurtzen diren errazen edo gaitzen, eta zergatik. Lehenengo artikulu honetan egileak aztertzen du *Horrela bizi bagina beti* liburua, Anjel Lertxundik prestatua zeinetan jasotzen diren hainbat idazleren narrazioak.

This article seeks to show that the rule about 'the focus of the question' set by Sebero Altube is not appropriate (the focus should precede the verb). In order to show this, texts written by classics have been selected but instead of analyzing the whole text, only the beginning sentences have been analyzed. It has been examined whether the writers place the focus before or after the verbs. Besides, word order have been manipulated to show the difference from the point of view of understanding. The reader will discover which word order makes understanding easier and why. The texts presented in this first article have been taken from the book *Horrela bizi bagina beti* by Anjel Lertxundi. The book recompiles several writers' narrations.

0. Sartaurrea

Gaurko euskarari bada lege bat galdegaiari buruz Altubek sortua (aurretik Azkuek-eta zirriborrata), eta dio galdegai (fokoa) aditzaren aurrean ipini behar dela, ezkerretara, aditzari inkatuta. Mitxelenak eta Villasantek, besteak beste, argi eta garbi adierazi zuten ez zeudela ados Altubek emaniko legearekin. Harrezkero, beste hizkuntzalari bik ere, biak tesiegileak galdegaiaren gainean, euren iritzia eman dute: bata, Eusebio Osak, esan du baserritarrek eurak (alegia, hiztunik onenak) direla Altuberen legearen hausle nagusiak; besteak, Bittor Hidalgok, datuak eskuetan (ahozkoak eta idazle klasikoan idatzizkoak), argi utzi du, txarto ulertu ez badituzte haren lanak, galdegai gehiagotan erabiltzen dela aditzaren gibelean aitzinean baino.

Altuberen lege hori, kritikak kritika, heldu ez bada ere Euskaltzaindiaren arau bihurtzeraino, gaur egun zabal dabil eskola-euskaltegietan (eurotan ditu jarraitzaileak amorratuena), eta abegi ona izan du idazleetan ere (hauetan denetariko jarraitzaileak ditu). Ikusten denez, gehien handi bat Altubezalea da izan, nire ustez, besteak beste:

1. Erraza eta garbia delako galdegaiaren legea.
2. Euskaldunok galtzen ari garelako euskal erreferentziak, eta hartzen gaztelania-frantsesetakoak.
3. Profesionalok ez ditugulako aztertu (edo gutxi eta txarto) idazle klasikoak eta Auspoa sailekoak.
4. Profesionalok ez ditugulako aztertu (edo gutxi eta txarto) ahozko testuak.

Baina galdegaiak zer dauka txarrik hori ibiltzeko beraren inguruan temati gora eta behera urtean joanean? Kontuan hartuta zer agintzen duen (hasiera-paragrafoan esan dut), itxura batean ez du ezer txarrik, batez ere galdegai laburra bada, motza (alegia, horrelakoetan berdintsu da aditz aurrean zein atzean erabiltzea galdegai), baina, denok-edo dakigunez, galdegai luzeagoa izan ahala, nekagarriaren nekagarria bihurtzen da perpausa eta, orokorrean, testua.

Artikulu honetan erakutsi gura dut Altuberen galdegaiaren legea ez dela zuzena, testu bidez erakutsi ere, baina frogatu beharrezkoa mugatuta testu-hasieretara soilik, narrazioetako hasiera-perpausetara. Hau da, jakin gura dut zelan ematen dioten hasiera testuei idazle eta hiztunek, galdegai non kokatzen duten, aditzaren ezkerrean ala eskuman. Horretarako, hartuko dut lehenengo artikulu honetan *Horrela bizi bagina beti* liburua, Anjel Lertxundik prestatua, eta aztertuko dut bertako idazleek (mordoskatxoak) zelan ematen dioten hasiera euren narrazioei, zein kokaleku hartzen duen galdegaiak, aditz aurrean edo ostean.

Aipaturiko liburu aztergai ez ditut aztertuko idazle batzuen narrazioak, hala zelan, Kardaberaz, R. M. Azkue, Zamarripa, D. Agirre eta Lauaxetarenak. Izan ere, lehenengo idazlea aditza ipini zalea da azkeneko lekuan, hurrengo biak galdegai teorizatzaileak dira, eta hondarreko idazle biak galdegaiaren teoriaren jarraitzaileak. Bestalde, aztertuko ditut baiezko perpaus hutsak (Kepak 1.000 pezetaren arraina jaten du egunero), eta ez ezezkoak (Kepak ez du jaten 1.000 pezetaren arraina egunero) eta ez galdezkoak (Kepak 1.000 pezetaren arraina

jaten du egunero?). Elkarrizketa bidez hasten diren narrazioak ere ez ditut jorratuko.

Artikulu-sail honetan erakutsi gura nuke helburu nagusitzat, Altuberen galdegaiaren legea ustela dela, lorrina, lardatsa; eta helburu sekundariotzat manipulatu nahi nitzuke perpausak, beste hurrenkera batzuk eman osagaiei, sekuentziatu era diferentetan, eta horrela, alderatu komunikazioaren aldetik jatorrizko perpausa eta aldaerak.

Hona hemen artikulu honetan zeintzuk urrats emango ditudan: lehenengo-lehenengo, jorratuko dut zeintzuk abantaila dituen perpaus batek komunikazioaren aldetik (errazago edo gaitzago prozesatu) galdegaia badago aditz ostean edo aurrean; bigarren, esplikatuko dut zer terminologia erabiliko dudan artikuluan; hirugarren, multzoka sailkatuko ditut idazleen adibide aztergaiak; laugarren, adibideok egingo ditut aztertu galdegai aldetik, sekuentziatu beste era batzuetara, eta alderatu jatorrizko perpausa eta aldaerak; eta, azkenez, emango ditut konklusioak.

1. Abantailak galdegaia aditz ostean dagoela

Edozein perpaus, oro har, errazago irakurtzen da galdegaia badauka aditzaren eskuman ezkerrean baino, eta are errazago galdegaia luzea bada eta konplexua. Teorian esanikoa hobeto ulertzeko praktikan, perpaus-multzo bi emango ditut:

- (a) Atzo kalean [ikusi nuen] **tximino bat**
Atzo kalean [ikusi nuen] **tximino bat metro bi alturakoa**
Atzo kalean [ikusi nuen] **tximino bat, metro bi alturakoa eta berbetan dakiena**
Atzo kalean [ikusi nuen] **metro bi alturako tximino bat**
Atzo kalean [ikusi nuen] **metro bi alturako tximino bat eta berbetan dakiena**
- (b) Atzo kalean **tximino bat** [ikusi nuen]
Atzo kalean **metro bi alturako tximino bat** [ikusi nuen]
Atzo kalean **berbetan dakien metro bi alturako tximino bat** [ikusi nuen]

Ikusten denez, lehenengo multzoan daude galdegaiak (beltzez) aditz ostean (kortxete artean); bigarren multzoan, ostera, aditz aurrean, bere leku kanonikoan. Perpausak, orokorrean, osagai-mota bi ditu: aditza eta osagarriak. Aditza da perpausaren informazio-muina (gunea), eta osagarriak dira, izenak berak dioenez, aditzaren informazioa osatzen dutenak. Bestela esateko, osagarriek aditzari egiten diote erreferentzia, aditzetik daude dindilizka, beraren mendekoak dira-eta, beraren sateliteak.

Kontuan hartuta zer esan dudan aurreko paragrafoan eta ikusita goragoko adibideak, argi dago, nik uste, perpaus bateko informazio-gunea aditza bada, berau zenbat eta aurrerago egon perpausaren, orduan eta lehenago irakurriko dela mezu nagusia, eta ondorioz, errazago perpaus osoa; eta, alderantziz, zenbat eta urrunago kokatu aditza, hainbat eta beranduago irakurriko da mezu nagusia, eta ondorioz, nekezago perpaus osoa. Beraz, itzelezko garrantzia dauka, ondo eta

erraz prozesatuko bada perpaus bat, aditza ahalbait aurreren erabiltzeak. Horre-
gegatik beragatik (a)ko perpausak errazago irakurtzen dira, aiseago prozesatu,
(b)koak baino.

Eta hizkuntza batek, gure kasuan euskarak, aukera ematen badigu aditza
aurreratzeko, galdegaia atzera botata, zergatik ez dugu aitzinatuko aditza? Edo
masokistak gara, eta gustatzen zaigu nekez eta penaz irakurtzea? Gurago dugu
aldats gora ibili aldats behera baino?

2. Argibideak

Artikulu hau pentsatuta dagoenez eskola-euskaltegi irakasle, itzultzaile eta
idazleentzat, eta ez gramatikan asko jantziak daudenentzat, ahaleginduko naiz
termino errazak erabiltzen. Edozein modutan ere, uste dut lagungarria gerta
daitekeela aurretiaz azalpentxo ematea terminoon gainean.

Egin aditz enfatizatzailea. Gure Erkidegoan erabiltzen dugu batez ere.
Funtziotzat du aditza enfatizatzea, gailentzea, hots, adieraztea aditza dela
galdegaia. Hona hemen adibide bi zelan erabiltzen den:

Haserretu EGIN da
Jausi EGINGO zara

Horrela, *egin*-en bidez gailendu egiten dugu aditza (adibide batean *haserretu*
eta bestean *jausi*). Iparraldean behintzat, oker ez banago, ez da erabiltzen;
hegoaldeko Nafarroan, ostera, unadaka, zonaka, erraturik ez banabil.

Menderagailuak. Adierazten dute zelako esangura duten eurak txertatuta
dauden perpausak, iragarri egiten dute perpaus-mota, zelakoa den. Hona hiru
multzotako menderagailu batzuk:

- (1). -eLA, -eN,...
- (2). BAIT-, BA-,...
- (3). -TZEA, -TZEKO,...

Osagarriak: Osagarriek, informazio aldetik, gune bat osatzen dute, gune edo
muin bat hornitzen dute esanahi aldetik. Guneak gehienbatean aditza eta izena
dira. Osagarriak izan daitezke aditzaren osagarriak (zuzena, zeharkakoa, adber-
bioak...) edo izenarenak (izenaren osagarriek beste izen bat ere hartzen dute:
adjektiboak). Ikus ditzagun osagarri-mota biok (aditz- eta izen-osagarriak) etsenplu
bidez:

1. [Nik] [Jon] [atzo] ikusi nuen [mendian]
2. [Keparen] [Arranondoko] txalet [dotorea]

Osagarriak kortxete artean sartu ditut. Lehenengo adibidean subjektua ere
osagarrietan sartu dut errazte aldera (badakit gramatika-mota askotan ez dagoela
osagarritzat). Bigarren adibidean 3 (izenaren) osagarri daude: bi, izenlagunak
([Keparen] eta [Arranondoko]) eta bat, izenondoa ([dotorea]). Nik osagarri berba
orokorrean erabiliko dut, eta adierazi gura du edozein adjektibo-mota: izenlaguna
edo izenondoa. Goiko adibideetan, bigarrean, *txalet* guneak hiru osagarri ditu.

Ordena logikoa. Informazio bat egoki prozesatuko bada, egoki sekuentziatu behar da, osagaiak hurrenkera egokian eman, ordena logikoan. Berba horrek adierazi gura du edozein sekuentzian, ahal dela, lehenengo, jarri behar dela gunea; eta, segidan, osagarria(k):

GUNEA + osag1 + osag2 + ...

Batzuetan, edo askotan euskaraz, ezin izaten da bete beti-beti, ehuneko ehunean, lege hori, hurrenkera logikoa. Orduan, osagarri bat ipini behar zaio aditzari aurretik:

Osag1 + GUNEA + osag2 + osag3 + ...

Informazioaren hurrenkera horrek balio du perpaus-mailarako zein izen-mailarako. Baita orokorrean diskurtso osorako ere, nahiz eta batzuetan (edo testu-mota batzuetan) hautsi legea, helburu pragmatikoa dela bide. Euskaraz, orokorrean esateko, puntu honetantxe daukagu herrenik handiena, hementxe gabiltza lapras-tadaka eten barik, gelditu barik.

Mendeko perpausak. Mota asko daude, baina guk hemen gehienbatean ikusiko ditugu erlatiboak eta konpletiboak (osagarriak).

– Perpaus *erlatiboak*: mota asko daude, baina hurrengoak lakoak ageri dira gehienbatean aztertuko ditudan testuetan (mota bi):

[Euskara lantzen duteN] euskaltzaleak dira euskaltzale-euskaltzaleak
Olatz, [ZEINA erdaldun jaiio BAITzen], orain euskalduna da

– Perpaus *konpletiboak* (edo *osagarriak*): klase bat baino gehiagokoak daude (menderagailuaren arabera sailkatuak). Hona hemen zelakoak agertuko zaizkigun gehienbatean (kortxetean ipini ditut perpaus konpletibook):

Amak esan dio [ezkondu egin behar deLA]
Ez dut uste [Kepak euskara dakieNIK]
Jaungoikoak nahi du [euskara salba dadiN]
Nik gura nuke [euskaltzaleek euskara lanTZEA]
Amak agindu dit [aitari oparia egiTEKO]

Perpaus erlatiboak. Ikus mendeko perpausak.

Perpaus konpletiboak. Ikus mendeko perpausak.

3. Adibideen sailkapena

Perpausak banan-banan jorratu barik, zerrenda hutsean, jorratuko ditut multzoka. Hona hemen zelako multzoetan batu ditudan perpausak:

1. *Bada* (*bazen*) multzoko perpausak
2. Aditzez hasten diren perpausak
3. Subjektu trantsitibodun perpausak
4. Subjektu intrantsitibodun perpausak
5. *Izan* adizdun perpausak
6. Galdegaia perpausa bat denekoak

7. Legea hausten duten perpausak
8. Legea betetzen duten perpausak
9. Aditza azken lekuan dutenak

Sailkapen hori, beharbada, ez da zientifikoa. Beste era askotara ere egin daiteke, hobeto egin ere, baina sailkapena aitzakia hutsa da perpausak errazago eta erosoago aztertzeko, zerrenda huts astun eta aspergarrian baino.

4. Adibideak aztertzen

Adibideak (perpaus aztergaiak) guztira, txarto kontatu ez baditut, 45 daude, eta sarreran esandako moduan baiezko perpausak dira soilik, alde batera utzi baititut ezezko eta galdezko perpausak. Perpaus aztergaiotan aditzak kortxete artean sartu ditut, eta galdegaiak belztu. Has nadin aztertzen perpausak, lehenengo multzotik hasi ere:

4.1. *Bada (bazen) multzokoak*

Multzo honetakoez ezaugarritzat daukate *izan* aditz kopulatiboa eta *ba-*aurrizkia. Biok elkarri inkatuta doaz, eta aditza egon daiteke orainaldian (*da*) zein lehenaldian (*zen*), edo pluralean ere (*dira*, *ziren*). Baina ez ditut sartu beste batzuk, hala zelan, *badaiteke*, *baliteke*,... Helduta lehenengo apartadu honetako perpaus aztergai, bi daude gure liburu aztergaien:

Ezkiogan [bada] etxe bat Etxaluze deitzen diotena. (Goierriko hiru pasadizo, A.M. Zabala)

Amoroton [bazen] behin muslari amorratu bat. (Anonimoak, 74. or.)

Uste dut *ba-* aurrizkia edo menderagailua goiko perpausetan erabiltzen dela aditz sintetikoa aurreratzeko. Horregatik, perpaus batean zein bestean aditza oso aurrera dago, bigarren kokalekuan, eta ipuin (eta kontakizun) askotan eta askotan aurrerengo lekuan ere joaten da (*Bazen behin...*). Beraz, perpaus aztergai horietan ere, gura izanez gero, ipin daiteke lehenengo lekuan *ba-* aurrizkia, lagun duela aditza:

[Bada] Ezkiogan etxe bat Etxaluze deitzen diotena.

[Bazen] Amoroton behin muslari amorratu bat.

Aldaerok oso onak dira, nire gogokoak, jatorrizkoak bestekoak. Baina hurrengo aldaerok ez ditut gomendatzen:

Ezkiogan Etxaluze deitzen dioten etxe bat [(ba)da].

Amoroton behin muslari amorratu bat [(ba)zen]

Aditza lar atzeratu da, eta nekagarriak bihurtu dira perpausok. Bigarren jatorrizko perpaus arrunta da *behin* osagarria aurreratzea, eta ez da ezer jazotzen, ia jatorrizkoa bezain ondo irakurtzen baita:

Behin Amoroton [bazen] muslari amorratu bat.

4.2. Aditzez hasten diren perpausak

Tituluak berak dioenez, multzo honetan sartu ditut aditzez hasten diren perpausak (ez dago batik ere aditz sintetiko hasitakorik). Gaur eguneko euskaran idazleek gutxitan ere gutxitan hasten dituzte perpausak aditz bidez; idazle klasikoek, ostera, nahikotan. Zoritxarrez, irakasle lartxok, eskola eta euskaltegietaoek, euren ikasleei gomendatzen diete, eta are gogor eskatu ere, ez hasteko perpausik aditz bidez. Oratuta bigarren apartadu honetako perpausari, hiru ageri dira:

[Beha egiozue] **kokilotari**: inon ere ez duzu halako gizon galantik. Hona zer dioen kontu zaharrak. (Anonimoak (Armanak Uskara), 102. or.)

[Ohartu bide zarete], irakurleak, herrixka guztietan badirela **bi gizon bitxi**, besteak ez bezalakoak direnak. (E. Zubiri, 148. or.)

[Haserretu ziren] herri txiki bateko **bi auzo**, (S. Baroja, 100. or.)

Altubek esaten du galdegaia aditzaren aurrean ipini behar dela, inkatu-inkatuta. Esaldi horrek inplikutzen du perpaus guztiek dutela galdegaia. Bestalde, Altubek aditzaren modu bi salbuetsi zituen bere legetik: subjuntibo bidez hasten direnak eta inperatibo bidezkoak. Beraz, lehenengo perpausa (*Beha egiozue*), eta antze-koak, onetsi egin zituen Altubek (gogoz kontra baina). Baina badira, zoritxarrez, nahiz eta aditza hasi subjuntibo edo inperatiboz, maisua baino maisuago-edo izan gura-eta, aditzaren aurrean paratzen dutenak galdegaia (*Itoiz salba dezagun*).

Beste perpaus biak gaitzesgarriak dira galdegaizaleen aldetik, indikatibo bidez hasten dira-eta. Horietan lehenengo perpausa galdegaizale amorratuek, honela-edo emango lukete:

Irakurleak, herrixka guztietan badirela besteak ez bezalakoak diren bi gizon bitxi [ohartu bide zarete].

Edo:

*Irakurleak, herrixka guztietan besteak ez bezalakoak diren **bi gizon bitxi** direla [ohartu bide zarete].*

Bata zein bestea, komunikazioaren aldetik (informazio nagusia atzean dute eta informazio osagarria aurrean), zein baino zein astakeriakoak dira, baina batez ere azkenekoa, izan ere, *ba-* aurrizkia barik, aditzak eta menderagailuak osatzen duten blokea (*direla*) azkeneko lekura aldatu dira perpaus osagarrian (aditzetik dago eskegita aurreko informazio guztia). Hurrengo aldaerok ere ez nituzke-edo gomendatuko (nahiz eta aurrekoak baino hobek izan):

*Irakurleak, herrixka guztietan badirela **bi gizon bitxi** [ohartu bide zarete] besteak ez bezalakoak direnak.*

*Irakurleak, herrixka guztietan **bi gizon bitxi** direla [ohartu bide zarete] besteak ez bezalakoak direnak.*

Jatorrizko perpausa bikain dago emanda. Edozein modutan ere, bada beste aukera bat guragokoa, *direnak* informazioa kenduta, alferrekoa baita, nire euskaran behintzat. Hona hemen, beraz, perpausa zelan dudan guren, nahien:

[Ohartu bide zarete], irakurleak, herrixka guztietan badirela **bi gizon bitxi**, besteak ez bezalakoak Ø .

Hirugarren perpausa ([*Haserretu ziren*] herri txiki bateko **bi auzo**), dagoenean errazago irakurtzen da galdegaia aditz aitzinean emanda baino:

Herri txiki bateko bi auzo [haserretu ziren],

Beste era batera ere eman daiteke, zer sintagma zati bi eginda:

Bi auzo [*haserretu ziren*] herri txiki batekoak

Edo hobeto honela (nahiz eta ez gorde galdegaiaren legea):

[*Haserretu ziren*] **bi auzo**, herri txiki batekoak

edo:

[*Haserretu ziren*] **bi auzo**, herri txiki bateAN

Edo:

Herri txiki bateAN [*haserretu ziren*] **bi auzo**

Edo:

Herri txiki bateAN bi auzo [*haserretu ziren*]

Egin ditudan aldaerok (*bateKO*aren ordez *bateAN*) baliokideak dira testuinguru horretan, baina ez beste askotan.

4.3. Subjektu trantsitibodun perpausak

Multzo honetan sartu ditut perpausak hasten direnak subjektu bidez, hain zuzen ere subjektu trantsitibo bidez (nork). Hona hemen zeintzuk perpaus aurkitu ditudan multzo honetakoak:

Gizon batek toki batean [ikusi zuen] etxe berri eder bat, baina osoki besteak ez bezala egina. (Sail Anonimoa, 132. or.)

Behin batean, nagusiak [bialdu omen zituen] Bilintx eta beste langile bat Ixturin eta Mirakontxa bitarteko palazio batera, (D. Azkue, 118. or.)

Gizon batek [zuen] emazte txit setatsua. (J. B. Agirre, 96. or.)

Perpaus guztiok eskema hau daukate:

Subjektua + [aditza] + **galdegaia**

Alegia, subjektua aditz aurrean (berari inkatuta, edo ez) eta galdegaia aditz atzean (berari itsatsita, edo ez). Perpaus guztietan galdegaia aditzaren ostean dago, lauretan aditzaren segi-segidan, eta batean aditzetik bi kokalekura. Perpausok, ikusten denez, hankaz gora ipintzen dute Altuberen legea. Jaramon eginez gero arrasatearraren gurariari (galdegaia aditz aurrean), honela geratuko lirateke perpausok:

Gizon batek toki batean etxe berri eder bat [ikusi zuen], baina osoki besteak ez bezala egina.

*Behin batean, nagusiak Bilintx eta beste langile bat **Ixturin eta Mirakontxa bitarteko palazio batera** [bialdu omen zituen].*

*Gizon batek **emazte txit setatsua** [zuen].*

Zertan esanik ez dago errazago irakurtzen direla jatorrizko perpausak aldaerok baino. Bigarren perpausa buru-hausgarria da irakurtzeko, lar ere lar atzera dauka-eta aditza. Hirugarren aldaeran ez dago alde handiegirik alderatuz gero jatorrizkoarekin.

Lehenengoa (*Gizon batek toki batean [ikusitua] **etxe berri eder bat**, baina osoki besteak ez bezala egina*) beste era honetara ere eman daiteke (aditza gehiago aurreratuta):

*Gizon batek [ikusitua] toki batean **etxe berri eder bat**, baina osoki besteak ez bezala egina.*

Neure irudipenez, azken aldaera hori hobeto dago emanda jatorrizkoa bera baino, aditza aurrerago duela irakurtzen baita. Edozein modutan, alde txatxarra dago batetik bestera, huskeriatxo.

Bigarren perpausuan beste aukera bat ere badago, galdegaia errespetatzen duen aukera baino hobea (baina jatorrizkoa baino okerrago):

*Behin batean, nagusiak Bilintx eta beste langile bat [bialdu omen zituen] **Ixturin eta Mirakontxa bitarteko palazio batera**,*

Azkeneko perpausuan ez dut ikusten egin daitekeenik beste aukerarik.

4.4. Subjektu intrantsitibodun perpausak

Aurreko multzoan sartu badituz perpaus subjektu trantsitibodunak, hemen tokatzen zait sartzea perpaus subjektu intrantsitibodunak. Hona hemen zeintzuk aurkitu ditudan mota horretakoak:

*A... deritzan ibar eder ugaritsuko gizon bat [ari zen] behin ardagela batean, **fanfarroikerian**, esanaz inon ez zela bere ibar hartan zen bezalako arto mardul galantik. (Sail Anonimoa, 133. or.)*

*Ama bat eta alaba bat [ari ziren] **bazkaritan**. (S. Baroja, 98. or.)*

*Gizon gorputz oneko bat [dator] **bidera**. (E. Bustintza, 30. or.)*

*Iluntze batean [etorri zitzaidan] **Tomas**, (E. Bustintza, 34. or.)*

Horiek ere, aurreko multzokoek bezala, honako eskemari erantzuten diote:

Subjektua + [aditza] + **galdegaia**

Errespetatuz gero Altuberen legea (zeinak baitio galdegaia beti egon behar dela aditzaren ezkerrean, berari inkatuta), goiko perpausok honetara paratu beharko liriateke:

*A... deritzan ibar eder ugaritsuko gizon bat behin ardagela batean, **fanfarroikerian** [ari zen], esanaz inon ez zela bere ibar hartan zen bezalako arto mardul galantik.*

*Ama bat eta alaba bat **bazkaritan** [ari ziren].*

*Gizon gorputz oneko bat **bidera** [dator].*

*Iluntze batean **Tomas** [etorri zitzaidan],*

Argi-edo dago aldaerok nekeztxoago irakurtzen direla jatorrizkoak baino. Lehenengo perpausa ipin daiteke beste modu batera ere (aurreko aukeran baino hobeto), errespetatzen duela galdegaiaren legea:

*Behin ardangela batean, A... deritzan ibar eder ugaritsuko gizon bat **fanfarroikerian** [ari zen],*

Lehenengo perpausean bertan jarraituta, mendeko perpaus bat daukagu, eta beronek beste mendeko bat dauka (*esanaz inon ez zela bere ibar hartan zen bezalako arto mardul galantik*). Gaur egun gehien-gehienek atzeratu egiten dute *esanez* informazioa, eta honela eman perpausa (beste operazio bat ere eginda):

bere ibar hartan zen bezalako arto mardul galantik inon ez zela esanaz

Perpaus horren eta jatorrizkoaren artean itzelezko aldea dago komunikazioaren aldetik: jatorrizkoan informazio nagusia (*esanez*) lehenengo kokalekuan dago eta gainerako informazioa (osagarria) ondoren, eta, gainera, gainontzeko informazioan bertan, konpletiboa bera, informazio nagusia ere (*inon ez zela*) aitzinatuta dago, eta enparaua jarraian; perpaus aldatuan dena dago atzekoz aurrera emanda, alegia, lehenengo informazio osagarriak eta gero nagusiak. Bestela esateko, jatorrizko perpausa hurrenkera logikoan dago emanda; aldaera, ostera, bestera, aldrebes.

4.5. *Izan* aditzdun perpausak

Multzo honetan *izan* aditz sintetiko (ez laguntzaile) bidezko perpausak sartu ditut (ez dago perpausik beste aditz sintetiko bidez hasten denik). Bi besterik ez ditut topatu:

*Ostatu bateko borta aldegainean izkiribaturik [ziren] **hitz hauek**: (Armanak Uskara), 104. or.)*

*Erroman [izan zen] aintzinako denboran **bilkura edo batzarre bat** Senadua izendatzen zena. (J. B. Agirre, 43. or.)*

Perpaus askotan arazoak izaten ditut askotan jakiteko zein den galdegaia. Esaterako, bigarren perpausean zein da? Belztua ala *Senadua izendatzen zena*? Edo *bilkura edo batzarre bat Senadua izendatzen zena*? Idazten dudanean ibiltzen ez naizenez horrelako koplatan (zein den galdegaia eta inon direnak egiten zelan kokatuko aditz aurretxoan, ezkerretara), buruhauste bat gutxiago. Gaur eguneko testuak aztertuta, batez ere idatzizkoak, ezagun daukate idazle gehienek ahaleginak ahalegin egiten dituztela galdegaia aditz aurrean paratzen. Eta askotan ez dira egokiak komunikazioaren aldetik. Zenbat denbora galtzen den galdegaiaren lege lorrina zelan beteko! Eta zenbat ahalegin alferrik! Hobe denbora eta ahalegina “galdu” ondo komunikatzen!

Perpaus aztergaiok helduta, hautsi egiten dute galdegaiaren legea, eta galdegaizaleek honela emango lituzkete (galdegaia aditz aurrean dutela):

*Ostatu bateko borta aldegainean **hitz hauek** izkiribaturik [ziren]: (Armanak Uskara, 104. or.)*

*Erroman aintzinako denboran **bilkura edo batzarre bat** [izan zen] Senadua izendatzen zena. (J. B. Agirre, 43. or.)*

Zertan esanik ez dago aldaerok nekezago irakurtzen direla jatorrizkoak baino, batez ere bigarrena. Askok eta askok bigarren perpausa askoz okerrago ematen dute azkeneko aldaera baino. Honela:

*Erroman aintzinako denboran Senadua izendatzen zen **bilkura edo batzarre bat** [izan zen]*

Perpaus hori itogarria da, arnas estuka jartzerainokoa, eta erakusgarria horrela idazten duenak gaitasun diskurtsibo kaxkarra duela. Bigarren perpaus horretan, beste aldaera bat ere eman daiteke, jatorrizkoa ia bezain ona (aditzaren aurrera eroanda *aintzinako denboran* osagarria):

*Erroman aintzinako denboran [izan zen] **bilkura edo batzarre bat** Senadua izendatzen zena*

4.6. Galdegaia perpausen bat denekoak

Orain arteko multzoetan galdegaia izan da sintagmaren bat, simplea edo konplexua. Ostera, multzo honetan sartu ditut perpausak galdegaia daukatenak perpausaren bat, jokatua zein jokatugabea.

a. Perpaus jokatu bidezkoak

Ageri diren perpaus jokatu guztiak perpaus konpletibo edo osagarriak dira, eta eurok multzo bitakoak (izendatu ditut Euskaltzaindiaren Gramatika batzordearen arabera):

A. Adierazpen-perpaus osagarriak

1. -eLA menderailudunak (ez denak)
2. -eN menderailudunak (mota batekoak soilik)

B. Galde-perpaus osagarriak edo zehargalderak

Hona hemen A.1.-ekoak zeintzuk dauden liburuan:

*Baserritar batek [agindu zion] Gipuzkoako herri polit bateko sastre edo jantziginari **galtza batzuk egin ziezazkiola**. (Anonimoak, 75. or.)*

*Kotys Traziako errege hark ere, [ikusirik], koleraren gauza honetan **flako zela**, (P. de Axular, 116. or.)*

*Gizenduta zegoen lehoi batek, [sinesterazi nahi zuen] **eririk zegoela**, (B. Mogel, 47. or.)*

*Gizon batek gau batez [amets egin zuen] **jan zuela arraultze bat gordinik**, (Anonimoak (Armanak Uskara), 105. or.)*

Altubek galdegaiaren legean (galdegaia aditz aurrean kokatu behar dela, berari inkatuta) gogoz kontra salbuetsi zituen perpaus konpletiboak, baina jaramon

handirik ez zioten (eta ez diote) egin jarraitzaile askotxok, eta hauek segitzen dute perpaus konpletiboa ipintzen, galdegaia dela, aditzaren aitzinean. Gure hiru perpaus aztergaiotan perpaus osagarriak galdegaia dira. Galdegaizale amorratuek (maisua baino maisuagoak) honela emango lituzkete perpausok, marro (izkin) eginda euren maisuari, Altuberi:

*Baserritar batek Gipuzkoako herri polit bateko sastre edo jantziginari **galtzak batzuk egin ziezazkiola** [agindu zion]*

*Kotys Traziako errege hark ere, koleraren gauza honetan **flako zela** [ikusirik],*

*Gizon batek gau batez **arraultze bat gordinik jan zuela** [amets egin zuen]*

Ezin perpaus artifizialagoak dira. Nork egiten du berba horrela? Gainera, neka-garriaren nekagarriak dira, itogarriak, batez ere lehenengoa, zeinetan aditza (perpausaren informazio nagusia) azkeneko lekuan baitago, perpaus-hasieratik lar urrun. Eta horretxek eragiten du nekea informazioa prozesatzean. Lehenengo perpaus horretan bada beste aukera bat jatorrizkoaren eta aldaeraren artean:

*Baserritar batek Gipuzkoako herri polit bateko sastre edo jantziginari [agindu zion] **galtza batzuk egin ziezazkiola***

Igarota A.2. perpaus osagarri motara, bertan perpaus bakarra dago betetzen dituen multzo horretako ezaugarriak:

*Seme batek [eskribitu zion] bere amari esanaz **nola ailegatuko zen igande goizean herrira asto txuri, polit baten gainean**. (S. Baroja, 98. or.)*

Hor perpaus osagarrian perpaus nagusia (esanaz) lehenengo kokalekuan dago, ederto batean egon ere. Lar astakeria litzateke azkeneko kokalekura eroatea:

***igande goizean herrira asto txuri, polit baten gainean nola ailegatuko zen** esanaz*

Kontuan hartuta perpaus osoa, esango nuke jatorrizkoa erarik bikainenean dagoela eraturta. Informazioa atzekoz aurrera eman zaleek honela lorrinduko lukete, morokildu:

*Seme batek bere amari **igande goizean herrira asto txuri, polit baten gainean nola ailegatuko zen** esanaz [eskribitu zion]*

Hori barrabaskeriaren akaboa da, baina, euskararen zoritxargarri, handiagoak ere ikusten dira gaur egun, hiru-lau bider irakurri eta ezin ulertzerainokoak (azken aldaera lorrin hori, ulertu, behintzat, egiten da bere bihurrian).

Oratuta B. perpaus osagarri motari, ezaugarri horietariko perpaus bakarra dago gure liburu aztergaietan:

*ljito batek [galdetzen zion] erretore bati **zenbat eraman behar zion bere aita zena lurreratzeko funtzioarengatik**. (Sail Anonimoa, 132. or.)*

Horko *eraman*, nik uste, *eman* da. Zein erraz irakurtzen den! Dagoneneko badakigu zelan lorrindu bikain dagoena (atzekoz aurrera emanda informazioa: informazio osagarria —zehargaldera bera— aurrerengo paratuta, buruan; eta, gero, ondorik, informazio nagusia —aditza—):

*ljito batek erretore bati **zenbat eraman behar zion bere aita zena lurreratzeko funtzioarengatik** [galdetzen zion]*

Jatorrizko perpaus bikainak badu beste aldaera bat ia hura bezain bikaina (horretarako, *nori* osagarria ipini behar da aditz aitzinean):

*ljito batek erretore bati [galdetzen zion] **zenbat eraman behar zion bere aita zena lurreratzeko funtzioarengatik.***

2. Perpaus jokatu gabe bidezkoak

Hona hemen zeintzuk perpaus dauden mota horretakoak:

*Agrigento deritzan leku batean [jarri ziren] egun batean **edaten** marinel batzuk: (J. B. Agirre, 144. or.)*

*Gau batean, [joan ziren] lapur batzuk Juan Fermin, Aiako gizon famaturen etxera **ate joka.** (Sail Anonimoa, 133. or.)*

*Behin batean, meza nagusia entzunik, ohitura den bezala gure herri txikietan, [bildu ziren] gizonak eliz atarian **elkarrekin hitz egitera.** (Sail Anonimoa, 136. or.)*

*Lapur batzuk [zeuden] **ate bat ezin irekirik.** (S. Baroja, 100. or.)*

*Sekula gertatzen bazaik, Pello, [joatea] **Madrid deitzen den Espainiako hiri famatura,** (J. B. Elissamburu, 37. or.)*

Perpausotan batek ere ez du betetzen Altuberen legea. Honen ezpalekoek honetara idatziko lituzkete (galdegaia aditz aurrean paratuta):

*Agrigento deritzan leku batean egun batean marinel batzuk **edaten** [jarri ziren]:*

*Gau batean, lapur batzuk Juan Fermin, Aiako gizon famaturen etxera **ate joka** [joan ziren]*

*Behin batean, meza nagusia entzunik, ohitura den bezala gure herri txikietan, gizonak eliz atarian **elkarrekin hitz egitera** [bildu ziren].*

*Lapur batzuk **ate bat ezin irekirik** [zeuden].*

*Sekula gertatzen bazaik, Pello, **Madrid deitzen den Espainiako hiri famatura** [joatea],*

Zertan esanik ez dago aukerok baino errazago irakurtzen direla jatorrizkoak.

4.7. Legea hausten duten perpausak

Aurreko multzoetako adibideek ere Altuberen legea hausten badute ere, beste ezaugarri komunak bat dela medio sailkatu ditut daudenean. Oraingo multzo honetakoak galdegaiaren legea soilik hausten dute, eta ez diet beste ezaugarri komunak topatu (beharbada badute, baina ez daukat horretan interes berezirik). Hona hemen perpaus-sorta polita:

*Behin [aurkitu zen] Bilintx **bere herritar batekin** eta honek esan zion: (Anonimoa, 25. or.)*

*Zereko erretoreari bazkari on bat kendu behar ziotela bada-eta, behin batean [joan ziren] **bere etxera** inguru-herrietako apaiz guztiak. (Anonimoa (Euskal Esnalea) 61. or.)*

*Behin [zihoan] Juan Martin, Aiako gizon harrigarria, **Alegriatik Tolosara.** (Anonimoak, 75. or.)*

*Kilimakas-eneko Jos Martin [etorri zen] **Goierriko herri koskor batetik Donostiara**, (T. Altzaga, 15. or.)*

*Aragoiko apaiz jaun batek bere sakristauari [eman zizkion] **hogeita zortzi duro** kasuila bat ona erosteko. (M. Olasagarre, 57. or.)*

*Boto bila dabilzan batzuk [joan ziren] iragan astean **zapatari batengana** botoa eskatzera. (Anonimoak, 74. or.)*

*Egun batez Piarres apostoluak zeruko atea [utzi behar izan zuen] **apur bat**. (P. Harizpe, 68. or.)*

Zelako erraz irakurtzen diren perpausok! Aditza baitute aurrera samar. Baina eman ditzagun perpausok Altubek agindutako moduan, galdegaizaleen asebetegarri, galdegaia dutela aditz aitzinean:

*Behin Bilintx **bere herritar batekin** [aurkitu zen] eta honek esan zion:*

*Zereko erretoreari bazkari on bat kendu behar ziotela bada-eta, behin batean **bere etxera** [joan ziren] inguru-herrietako apaiz guztiak.*

*Behin **Alegriatik Tolosara** [zihoan] Juan Martin, Aiako gizon harrigarria.*

*Kilimakas-eneko Jos Martin **Goierriko herri koskor batetik Donostiara** [etorri zen],*

*Aragoiko apaiz jaun batek bere sakristauari **hogeita zortzi duro** [eman zizkion] kasuila bat ona erosteko.*

*Boto bila dabilzan batzuk **zapatari batengana** [joan ziren] iragan astean botoa eskatzera.*

*Egun batez Piarres apostoluak zeruko atea **apur bat** [utzi behar izan zuen].*

Behin eta berriz esan eta esango dut: orokorrean erraztxoago irakurtzen dira jatorrizko perpausak aldaerok baino, aditza aurrerago dago-eta. Perpausotan, bigarrena, hirugarrena, bosgarrena eta azkenurrekoa, beste era honetara ere (batez ere) emango lituzkete askok eta askok:

*Zereko erretoreari bazkari on bat kendu behar ziotela bada-eta, behin batean inguru-herrietako apaiz guztiak **bere etxera** [joan ziren].*

*Behin Juan Martin, Aiako gizon harrigarria **Alegriatik Tolosara** [zihoan]. Aragoiko apaiz jaun batek kasuila bat ona erosteko bere sakristauari **hogeita zortzi duro** [eman zizkion].*

*Boto bila dabilzan batzuk iragan astean botoa eskatzera **zapatari batengana** [joan ziren].*

Aldaerok aurrekoak baino okerrago daude komunikazio aldetik, nekagarriago irakurtzen dira. Niretzat, jatorrizkoak dira onenak, nahiz eta ez bete (edo, esan beharko nuke batez ere ez betetzeagatik) galdegaiaren legea.

4.8. Legea betetzen duten perpausak

Multzo honetan, liburuko zeintzuk perpausok betetzen duten Altuberen legea, horientzat ere tokia egin dut, aztertzeo beste kontu batzuk, nire ustez interesgarriak. Hona hemen perpaus-pilo polita:

1. *Aspaldian jendea **isilik** [dago] kontrabandoaren gainean. (B. Iraola, 48. or.)*

2. ***Sonatua** [zen] inguru guztian Mendiondoko alkatearen ostatua: (P. M. de Urruzuno, 88. or.)*

3. Senar-emazteak **beren hurrekin** [bizi ziren] baserri batean. (M. Antonio de Antía, 78. or.)
4. Pintore batek, eta ez, gero, ustez gutxi zekiena, **erretrato bat** [egin zuen] behin kitarrajole batena. (Anonimoa (Euskal-Erria), 14. or.)
5. Pastor Ixuela, Aiako bertsolari famatua, **behar baino beranduxeago** [joan zen] igande arrats batean etxera, (Anonimoa, 62. or.)
6. **Baserri batera** [joan ziren] behin atso batzuk, (Sail Anonimoa, 133. or.)
7. **Joanes** [zuen] izena; gizon ona, maitea ezin gehiago. (J. Barbier, 107. or.)
8. Amezketako erretore ospetsuak eta Fernando koplari erneak **atsegintasun handiak** [ohi zituzten] bide oneko gauzetan elkarri txaskoak ematen. (K. Otaegi, 86. or.)
9. Saratar batek **gogo handia** [zeukan] bazkari bat egiteko abadearen etxean. (E. Bustintza, 32. or.)

Perpausotan galdegaiaren legea betetzen da, eta kontu batzuk komentatu gura ditut. Lehenengoa bikain dago emanda. Okerrago litzateke honetara (nekagarriago da, azkeneko lekuan baitu aditza):

1. *Aspaldian kontrabandoaren gainean jendea **isilik** [dago].*

Bigarrena ere bikain dago emanda, nahiz eta galdegaiaren legea bete (ez diot bete behar ez denik, ezpabere, ez betetzeko itsu-itsu eta edozein egoeratan). Okerrago, askoz okerrago litzateke, honela emanez gero (neketxoago da, aditza azken lekuan dago-eta):

2. *Inguru guztian Mendiondoko alkatearen ostatua **sonatua** [zen]:*

Hirugarren perpausa (*Senar-emazteak **beren hurrekin** [bizi ziren] baserri batean*) ondo dago dagoenean (galdegai aditz aurrean). Okerrago egongo litzateke batzuek, edo askok, paratzen duten modura:

3. *Senar-emazteak baserri batean **beren hurrekin** [bizi ziren]*

Laugarrena ere (*Pintore batek, eta ez, gero, ustez gutxi zekiena, **erretrato bat** [egin zuen] behin kitarrajole batena*) bikain dago, baina hor ere askok barrabaskeritxo egiten dute honetara emanda (zati bitan emaniko sintagma bihurtuta dago sintagma bakarrekoa):

4. *Pintore batek, eta ez, gero, ustez gutxi zekiena, behin kitarrajole baten erretrato bat [egin zuen].*

Bosgarren perpausa ere (*Pastor Ixuela, Aiako bertsolari famatua, **behar baino beranduxeago** [joan zen] igande arrats batean etxera*) ondo-ondo dago, nire ustez behintzat. Askotxok honela lorrinduko lukete, lardaskatu:

5. *Pastor Ixuela, Aiako bertsolari famatua, etxera igande arrats batean **behar baino beranduxeago** [joan zen],*

6. eta 8. perpausetan ere ez da komeni aditz ondoko informazioa aldatzea aditz aurrera; izan ere, horrela, aditza azkeneko kokalekuan jarrita, nekagarriago egiten da perpausa prozesatzea.

Azkeneko perpausa, zoritxarrez, honela emango lukete lartxok (aditza eroanda azken lekura):

9. *Saratar batek abadearen etxean bazkari bat egiteko gogo handia [zeukan].*

Edo beste era honetan, hobetotxo:

9. *Saratar batek bazkari bat egiteko gogo handia [zeukan] abadearen etxean.*

Baina aldaera biotan alferrik paratu da *bazkari bat egiteko* osagarria *gogo handia*-ren aurrean, eta horrela, hurrenkera logikoaren legea hautsita (informazio gunea + informazio osagarria), irakurketa nekagarriago egiten da. Bestalde, nik hiztun natural bati (euskaraz eskolatu bako bati) ez diot horrelakorik inoiz entzun, bai laburragoak (konparazio baterako, “jateko gogoa”, eta antzekoak), baina ez *gogoa* izenak duela izenondoren bat lagun, gure perpaus aztergai *handia*).

4.9. Aditza azken lekuan dutenak

Aurreko multzoko adibideek Altuberren legea betetzen dute, baina ez dute aditza azkeneko kokalekuan, multzo honetakoek legez. Aditza azkeneko kokalekuan ipintzea arriskugarria gerta daiteke, batez ere perpaus luzeetan; laburretan, normalean ez du beharlekurik ematen. Zoritxarrez, oraindino euskaltegi eta eskola batzuetan irakasleek agindua ematen diete ikasleei aditza atzenen paratzeko perpausuan, edozelakoa dela galdegaia, luzea zein laburra zein konplexua. Eta hala ohituz gero ikasleak, hor ikusten ditut buru hausten perpaus bakoitzean zelan emango aditza azken lekuan, eta horretan indar-husten, beste gauza batzuetan, askoz inportanteagoak, garunak urtu beharrean.

*Gizon aberats bat, **zikoitza eta lukukaria**, [eritu zen]; (Anonimoa (Euskal-Erria) 82. or.)*

*Gerlatik lekora, amerikano gerlarietatik bi **Euskal Herriko hirixka batean** [gelditu dira]. (Anonimoa (Gure Herria), 20. or.)*

*Legazpiarrak **azkarrak eta erneak direlako sona** [dute], baina azkarren artean ere kirten antzeko batzuk [sortzen dira], (Goierriko hiru pasadizo, A. M. Zabala)*

*Ehizazale gazte batek **bi eper** [harrapatu zituen]. (P. De Iraizoz, 83. or.)*

Lehenengo perpausari dagokionez, nik ez dut ezer kontra; galdegaizaleek, ostera, eskatzen dute galdegaia aditzaren ezkerrean egon behar dela, eta horretaz gain, aditzari inkatu-inkatu-inkatuta, koma barik, jatorrizkoan ez legez. Honetara-edo:

Gizon aberats zikoitz eta lukukaria [eritu zen];

Ez dakit ziur askok horrela idatziko ote luketen jatorrizko perpausa, baina perpaus biok elkarren diferentek dira. Beste irakurketa bat ere egin daiteke jatorrizko perpausaz: egileak ez darabilela *egin* elementu aditz enfatizatzailea, askok eta askok darabilgun moduan:

Haserretu EGIN da

Jausi EGIN da

Eta orduan idazleak horko adibide biok honela emango lituzke (*egin kenduta*):

Haserretu Ø da

Jausi Ø da

Beraz, hori guzti hori kontuan hartuta, jatorrizko perpausa beste honen balioki-dea litzateke:

Gizon aberats bat, zikoitza eta lukukaria, [eritu EGIN zen];

Eta, hortaz, perpausa horrela, artez, ez legoke drogarik (borrokarik), eta denok pozarren.

Bigarren perpausari dagokionez (*Gerlatik lekora, amerikano gerlarietatik bi Euskal Herriko hirixka batean gelditu dira*), nahiz eta perpaus luzetxoa izan, ez daukat ezer kontrakorik. Badago, gura izanez gero, arintzerik, aditza aurreratxoago eroanda:

Gerlatik lekora, amerikano gerlarietatik bi Euskal HerriaN gelditu ziren hirixka batean.

Hirugarren perpausari dagokionez (*Legazpiarrek azkarrek eta erneak direlako sona dute, baina azkarren artean ere kirten antzeko batzuk sortzen dira*), perpaus konplexuan perpaus bakun bi daude, *baina* juntagailua tarteko. Lehenengo perpaus bakunean egin daiteke orraztutxoren bat aditza aurrerago eroanda, ezkerretarago (eta jantzita duela -eLAKO menderagailua barik -eLA):

Legazpiarrek sona dute azkarrek eta erneak direla,

Horrela, operazio bi egin ditut:

1. Aditza aurreratu dut, perpausoko informazio nagusia, zeinetatik dindilizka dauden beste osagarri guztiak (nork eta zer).

2. Zer osagarrian, lehenago bazen *azkarrek eta erneak direlako sona*, orain da *sona azkarrek eta erneak direla*, zeina eman daitekeen modu bitara (lehenengo gorago ere eman dut):

(a) *Legazpiarrek sona [dute] azkarrek eta erneak direla,*

(b) *Legazpiarrek [dute] sona azkarrek eta erneak direla*

Horko (a) eta (b) aldaeretan aurreratu egin dut *zer* osagarrian informazio gunea (*sona*), eta horrela eman perpausaren informazioa hurrenkera logikoan; jatorrizko perpausaren, ostera, -eLAKO menderagailua erabiltzeak dakar, lehenengo, paratu beharra osagarria, eta, gero, aditza; hau da, perpausaren informazioa atzekoz aurrera ematea, ordena antilogikoan (arriskugarria sekuentzia luzea bada).

Hirugarren perpausari dagokionez (*Ehizazale gazte batek bi eper harrapatu zituen*), ondo ere ondo dago, baina ez dakienarentzat esango dut hurrengo era honetan ere erabili izan dela (artikulu honetan bertan ere ageri da adibide bat: *Gizon batek zuen emazte bat txit setatsua J. B. Agirre, 96. or.*):

Ehizazale gazte batek [harrapatu zituen] bi eper.

Gaur egun perpaus horrek debeku gogorra dauka, baita beste askok ere. Zoritarrez, gaurko euskara debeku ustel larregiz dago josita, eta behartxo honetan ikusi ditugu batzuk.

5. Konklusioak

Heldu da balantzea egiteko ordua. Oraturik soilik artikulu honetako xede nagusiari, azterturiko zenbat perpaus hausten duten galdegaiaren legea, jorratu ditudan 45 perpausetan 32k egiten dute (eta 12k ez), hau da, %70an gutxi gorabehera hausten da legea (eta, jakina, galdegai aditz atzean dela errazago irakurtzen da aurrean dela baino, batez ere galdegai luzeetan). Azterturiko adibideetan, galdegaiak, bera aditz ostean kokatzeko, ez du zertan izanik luzea, laburrak ere ageri dira, baita (gehienak) elementu bakarrekoak ere. Baina bada beste datu bat ere garrantzitsua: Altuberen legea betetzen den perpaus gehienetan edo guztietan aditza oso aurrera darabilte idazleek, gaurko idazle gehienek ez legez, eta horrela saihesten dute atzera-karga (alperreko gain-karga) eta lortu irakurleentzat irakurgai irakurterrazak (“alperreko” neke barik). Perpaus guzti-guztietan, nik uste, garrantzia handiagoa dauka eduki galdegaiaren fetitxea betetzeak baino aditza ahalik aurreren erabiltzeak. Azkeneko gogoeta: idazten dugunean, zergatik ez idatzi artikulu honetan ikusi ditugun idazleek (eta beste askok) bezala, galdegai (eta aditza) ahalik eta aurreren perpausetan, horrela prozesatzen badugu errazago?

Bibliografia

- Altube, S., (1975): *Erderismos*, Euskaltzaindia, Bermeo.
- Azkue, R. M. (1891): *Euskal-Izkindea Gramática Eúskara*, Bilbao.
- Azurmendi, J. (1977): “*Orixeren frasekera: ritmoa*”, In *Zer dugu Orixeren alde*, Jakin, 325-345.
- Euskaltzaindia (1987): “*Hitz ordena*”, Euskal Gramatika lehen urratsak-1 (Eraskina).
- Garzia, J. (1997): *Joskera lantegi*, IVAP.
- , (1998): “Ikastea pentsatzen euskaraz”, *Administrazioa euskaraz* **19**.
- Hidalgo, V. (1995a): *Hitzen ordena euskaraz* tesi dokoral.
- , (1995b): “Ohar estatistiko garrantzitsuak euskararen hitz ordenaren inguru. Euskara, S. V. O.?” , *FLV* **70**.
- , (1996a): “Hurbiltze bat euskal hitz-ordenaren tradizioari”, *FLV* **71**.
- , (1996b): “Euskal joskeraren mito kaltegarriak(I). Nola idatzi euskaraz modu arin, ulergarri eta aberats baten”, *Hizpide* **35**, 39-51.
- , (1996c): “Euskararen hitz ordena librea. Euskal joskeraren mito kaltegarriak (II)”, *Hizpide* **36**, 21-27.
- , (1996d): “Aditza maiz euskaraz esaldi hasieran. Euskal joskeraren mito kaltegarriak (III)”, *Hizpide* **37**, 23-31.
- , (1998): “Baina, zer da euskal joskera?”, *Administrazioa Euskaraz* **21**.
- , (1999): “Hitz ordenaren estatistikak euskaraz”, *Anuario del Seminario Julio de Urquijo*, 1999-2, 393-451.
- , (2002): “Hitzen ordena esaldian”, *Senez* **25**.
- Irigoyen, I. (1980): “Sebero Altube eta euskal hizkuntzaren pleguak”, *Euskera aldizkaria*, **XXV**, **2**.
- Kaltzakorta, M. (1997a): “Nor baiten edo zerbaiten berri ematen”, *Administrazioa Euskaraz* **15**.
- , (1997b): “Definizioak”, *Administrazioa Euskaraz* **16**.

- Mitxelena, K. (1988): *Historia de la literatura vasca*, Erein, Donostia
- , (1981): “Galdegaia eta mintzagaia euskaraz”, *Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak*, Univ. de Deusto.
- Mocoroa, J. M. (1980): “Eskutitza, I. Eizmendi “Basarri-ri” erantzun”, in Irigoyen, A. (1979) *Sebero Altube eta euskal hizkuntzaren pleguak*, Euskera, 1980.
- Nuñez Ladevéze, L. (1993): *Teoría y práctica de la construcción del texto*, Ariel Comunicación, Bartzelona.
- Lertxundi, A. (1991): *Horrela bizi bagina beti*, Erein, Donostia.
- Osa, E. (1990): *Euskararen hitzordena*, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Villasante, L. (1979): *Historia de la literatura vasca*, Aranzazu.
- , (1975): “Hitzaurre gisa”, in S. Altube, *Erderismos*, Euskaltzaindia.
- , (1980): *Sintaxis de la oración simple*. EFA. Serie Eleizalde.
- Zabala, I. (2000): “Hitz-hurrenkera euskara tekniko-zientifikoan”, *Ekaia* 12.
- Zubimendi, J. R. eta Esnal, P. (1993): *Idazkera-liburua*, Eusko-Jaurilaritza.